# añarbe

# BASO ERRESERBA
## RESERVA FORESTAL

*Basoak eta urak bat egiten duten eremua*

*Donde se funden bosques y agua*



## ZER
### DELA ETA ERRESERBA AIAKO HARRIA PARKE NATURALAREN GUNEAN?

## ¿POR QUÉ
### UNA RESERVA DENTRO DEL PARQUE NATURAL DE AIAKO HARRIA?

AÑARBEn ondo zaindutako pagadi zabalaz gain, Gipuzkoa eta Bizkaiko hariztirik handiena topa dezakegu. Hosto galkorreko baso hauek, berebiziko balioa duen fauna eta flora jasotzen dute eta are gehiago, Gipuzkoako biztanleriaren erdiak edaten duen uraren kalitatea ezin hobea izatearen arrazoi dira. 1000 ha inguru duen ondare natural honek, bere ibai eta baso naturalen berreskuratzea bermatzeko eta suntsipena saihesteko, babes eraginkorra behar du. HURBILDU ZAITEZ EZAGUTZERA!

En AÑARBE además de un extenso y bien conservado hayedo encontramos el mayor robledal de Gipuzkoa y Bizkaia. Estos bosques de hoja caduca, que acogen una flora y fauna de gran valor, contribuyen a que el agua almacenada en el embalse del mismo nombre llegue con excelente calidad a la mitad de la población de Gipuzkoa. Este patrimonio natural de algo más de 1000 ha, necesita una protección efectiva que evite su degradación y permita la restauración de los hábitats, tanto forestales como fluviales. ¡ACÉRCATE A CONOCERLO!

Argazkia / Fotografía: Paisajes Españoles, S.A.


A.C. Senosiain

### ZENBAIT ESPEZIEK BASO NATURAL ZABALAK BEHAR DUTE BIZIRAUTEKO
### PARA LA CONSERVACIÓN DE ALGUNAS ESPECIES SE PRECISAN EXTENSOS BOSQUES NATURALES

Añarben pagadi, harizti eta haltzadi baso natural helduak nagusitzen dira. Hauen artean Gipuzkoan dagoen habitat mehatxatuenetakoa gailentzen da: harizti azidofiloa. Mendetan zehar baso hauen garapen naturala ikazkintzaren eta egur ustiapenaren menpe egon da, baina erabilera hauen desagerpenak, berezko birsorkuntza ekarri du. Bisoi europarra, okil beltza edo *Rosalia alpina* bera, baso heldu hauetan bazkatu, gorde, umatu eta bizitzera heldu dira berriz. Mota honetako faunaren biziraupena bermatzeko baso eremu handiak behar dira eta Añarbeko baso honek, gertu dituen Irati, Bertiz eta Artikutzarekin batera, Gipuzkoako hego ekialdetik Pirinioetara zabaltzen den zuhaitz-korridorea osatzen dute.

Añarbe es dominio de las hayas, robles y alisos, que forman extensos bosques maduros; y entre ellos destaca el robledal acidófilo, uno de los hábitats más amenazados en Gipuzkoa. Durante siglos el desarrollo natural de estas masas forestales ha estado afectado por el carboneo y la explotación maderera, y con la desaparición de estos aprovechamientos se ha producido su regeneración natural. El visón europeo, el pito negro, o la *Rosalia alpina* han vuelto a alimentarse, refugiarse, criar,... a vivir en sus bosques maduros. Este tipo de fauna precisa territorios boscosos muy amplios para asegurar su supervivencia. Éste de Añarbe, junto con otros bosques cercanos como Irati, Bertiz y Artikutza, forma un pasillo arbolado entre el sureste de Gipuzkoa y los Pirineos.


Jorge González


Jesús Rubio


Gema Arrugaeta


Jorge Gonzalez

## BABESA
### NEURRIAK EZARTZEAN DATZA

Basoen babesak ez du ekoizpenarekin edo erabilerarekin kontrajarria egon beharrik, baina basoaren birsorkuntzak laguntza behar du oinarrizkoak diren prozesu ekologikoak bermatzeko, adibidez:
- Larre mugatuak ezarri, ganaduak zuhaitzen muskilak jan ez ditzan.
- Ehiza saihestu zenbait espezieren populazioa indartzeko.
- Lurreko eta zutikako egur hilaren presentzia areagotu.

## CONSERVAR
### CONSISTE EN ESTABLECER MEDIDAS

La conservación de los bosques no tiene porqué estar reñida con el mantenimiento de los usos o aprovechamientos que hagamos de ellos. La regeneración natural del bosque necesita ayuda para garantizar los procesos ecológicos esenciales:
- Establecer áreas de pasto acotadas para impedir que el ganado coma los retoños de los árboles.
- Evitar la caza para reforzar las poblaciones de ciertas especies.
- Favorecer la presencia de madera muerta en el suelo y en pie.



## EURI URA URTEGIRA IRITSI BAINO LEHEN, ATXIKITU ETA APROBETXATU EGITEN DA
## LA LLUVIA SE RETIENE Y APROVECHA ANTES DE LLEGAR AL EMBALSE

Ingurune honetan ugaria den euria zuhaitzen enborretik labaintzen da mara-mara. Goroldioek eta zuhaitzek, hezetasuna xurgatzeaz gain, lurraren higadura saihesten dute. Erreka, eta kontaezinezko errekastoetatik zehar iragaten den ura, garbi gordetzen da Añarbeko urtegian. Goi-ibarretan dauden basoek ibaien uraren tenperatura erregulatzen dute eta izokina, amuarraina, bisoi europarra edo muturluzea bere uretan bizitzea ahalmentzen dute.

La lluvia, abundante en esta zona, resbala suavemente a través de los troncos de los árboles que junto con los musgos absorben la humedad y protegen el suelo de la erosión. El agua que discurre a través de innumerables regatas y arroyos, se almacena limpia en el embalse de Añarbe. Los bosques situados en la cabecera de los ríos regulan la temperatura del agua y posibilitan que especies como la trucha, el salmón, el visón europeo o el desmán habiten en sus aguas.


Jesús Rubio

## BASOEK
# MESEDE UGARI DAKARKIGUTE

Basoek, lurra mantentzeaz gain, airea garbitzen dute, atmosferako $CO_2$ xurgatu eta finkatzen dute, eta naturaz eta basa bizitzaz gozatzeko aukera eskaintzen digute. Beraiei esker, uraren ezaugarri fisiko-kimikoak mesedetuta suertatzen dira. Auto-garbiketa honek ondoren jaso beharreko tratamenduak gutxiago izatea ahalbidetzen du eta edango dugun urak goreneko kalitate eta gustua izatea ziurtatu.



## LOS BOSQUES
# NOS BENEFICIAN
## DE MANERAS MUY DIVERSAS

Los bosques, además de retener la tierra depuran el aire, fijan el $CO_2$ de la atmósfera y nos permiten disfrutar de la naturaleza y la vida salvaje. Gracias a ellos se ven favorecidas las características físico químicas del agua, que se autodepura favoreciendo que los tratamientos posteriores sean menores y que bebamos un agua de muy buen gusto y calidad.



## EZ AL DUZU USTE INGURUNE PRIBILEGIATU HAU EZAGUTZEA
# MEREZI DUELA?

Etortzen zarenean gogoan izan errespetua eskatzen duen babestutako eremu batean zaudela. Gure aholkua hauxe: balizatutako ibilbideetatik ibili, zaborrik ez utzi eta isilik ibili inor ez eragozteko. Badakizu, argazkiak zurekin eraman ditzakezun oroigarri onenak dira!

Si vienes, ten en cuenta que te hallas en un lugar protegido, que merece respeto. Nuestro consejo es que camines por los senderos balizados, no abandones basuras y vayas en silencio para no molestar. Y ya sabes, una foto es el mejor recuerdo material que te puedes llevar.

## ¿NO CREES QUE
# MERECE LA PENA
## CONOCER ESTE PRIVILEGIADO ENTORNO?







## AÑARBEKO ERRESERBA EREMUKO
# IMÁGENES IRUDIAK
## DE LA ZONA DE RESERVA DE AÑARBE







# GR-121 GIPUZKOARI BIRA

Gipuzkoari bira ematen dion ibilbide luze hau Añarbeko mugatik pasatzen da Irundik Hernaniko Ugaldetxorako etapan, eta PR-Gi 1004, PR-Gi -1003 eta PR-Gi 1001 ibilbideekin bat egiten du zenbait tokitan. Hainbat lursail pribatuetan eukalipto eta intsigni pinuen landaketa exotikoak ageri badira ere, nabarmentzekoak dira pagadi eta harizti aberatsak. ibilbidean baso itxiak eta eremu irekigoak tartekatzen dira, paisaiaz gozatzeko aukera eskainiz.

# GR-121 VUELTA A GIPUZKOA

El GR-121 o vuelta a Gipuzkoa en la etapa entre Irun y Ugaldetxo (Hernani), coincide con el límite norte de la Reserva y se solapa en varios tramos con los siguientes pequeños recorridos: PR-Gi 1004, PR-Gi 1003 y PR-Gi 1001. Aunque las plantaciones exóticas de eucalipto y pino insigne están presentes en algunos terrenos privados, son los ricos hayedos y robledales los que destacan. A lo largo del recorrido se alternan densos bosques con zonas más abiertas, desde donde poder apreciar vistas panorámicas.





- Gailurra / Cima
- Borda / Refugio
- Atseden gunea / Área recreativa
- Aparkalekua / Parking
- Jatetxea / Restaurante
- Informazioa / Información



# PR-Gi 1003: URDABURURI ITZULIA
# VUELTA A URDABURU



| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Abiapuntua eta itzulera<br>Punto de partida y llegada | Listorreta (Errenteria) | Distantzia<br>Distancia | 11km | | |
| Denbora<br>Tiempo | 3h 45min | Desnibela<br>Desnivel | 390m | Zailtasuna<br>Dificultad | ertaina - media |

Urdaburu tontorraren inguruan doan ibilbide honek, harizti eta pagadietan barneratuko zaitu, urtaro bakoitzean kolore ezberdina duen baso masa itxi hauetatik atera orduko, ikuspegi panoramiko paregabea eskainiz.

Este itinerario alrededor del monte Urdaburu discurre entre masas boscosas de robles y hayas que van adquiriendo distinta tonalidad a lo largo del año. Se intercalan espacios más abiertos desde los que puedes observar panorámicas excepcionales.

## MIDE

| Ingurunea<br>Medio | Ibilbidea<br>Itinerario | Desplazamendua<br>Desplazamiento | Esfortzua<br>Esfuerzo |
|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 2 | 3 |
| Inguru naturalaren laztasuna<br>Severidad del medio natural | Orientazioa ibilbidean<br>Orientación en el itinerario | Desplazamenduaren zailtasuna<br>Dificultad en el desplazamiento | Egin beharreko esfortzua<br>Cantidad de esfuerzo necesario |




## INTERES GUNEAK
## PUNTOS DE INTERÉS

**LISTORRETA:** Atseden-gune zabala duen eremua. Berdegune honetatik gertu topatuko duzu Burdin Aroko Langagorriko monumentu megalitikoa. Área recreativa. Cerca de esta campa encontrarás el monumento megalítico de Langagorri que data de la Edad de Hierro.

**MALBAZARGO URMAELA • CHARCA DE MALBAZAR:** Hainbat uretako fauna eta flora espezieren bizitokia ziurtatzeko birsortu den putzua. Igel, arrabio eta uhandreak lasai bizi dira bertan. Malbazarren bertan atsedenlekua dago borda baten ondoan. Para asegurar el hábitat de varias especies de flora y fauna acuática, se ha regenerado una balsa que resulta indispensable para ranas, tritones y salamandras. En la misma zona hay una borda y un área recreativa.

**URDABURUKO TONTORRA • MONTE URDABURU:** 598 m-ko mendi honek Kantauri itsasaldera duen ikuspegiagatik, arrantzaleek erreferentzia gisa erabili zuten. Esta cumbre de 598 m servía de referencia para los pescadores, ya que es fácilmente identificable desde el Mar Cantábrico.

**PAGOSARDE:** Garai bateko ikazkintzaren lekuko izan ziren pago eta haritz zaharrez osatutako eremua. Hemen ere borda eta atsedenlekua daude. Zona de hayas y robles que fueron testigos de la actividad carbonera. En pleno bosque hay una borda y un área recreativa.

**IKUSPEGIA • VISTA PANORÁMICA:** Basoetatik atera eta Jaizkibel, Larrun edo Mendaur mendi lerroak eta Donostia, Goizueta eta Lapurdiko kosta izango dituzu begien aurrean. Al salir de los bosques sorprenden las panorámicas de los cordales montañosos de Jaizkibel, Larrun o Mendaur y Donostia, Goizueta y la costa de Lapurdi.



# PR-Gi 1001: UGALDETXOKO BASOAK
# BOSQUES DE UGALDETXO

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Abiapuntua eta itzulera<br>Punto de partida y llegada | Ugaldetxo (Hernani, Ereñotzu) | Distantzia<br>Distancia | 10,5km | | |
| Denbora<br>Tiempo | 4h 10min | Desnibela<br>Desnivel | 700m | Zailtasuna<br>Dificultad | ertaina - media |



Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mugatik igarotzen den ibilbide honetan zehar, duela zenbait hamarkada egur ustiaketarako egindako pinu landaketek kontraste itzela egiten dute hain basati mantendu diren pagadi zaharrekin.

En este recorrido que discurre por el límite entre Gipuzkoa y Navarra, los cultivos madereros de coníferas de décadas pasadas contrastan con los viejos hayedos que se han mantenido salvajes desde antiguo.

## MIDE

| Ingurunea<br>Medio | Ibilbidea<br>Itinerario | Desplazamendua<br>Desplazamiento | Esfortzua<br>Esfuerzo |
|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 2 | 3 |
| Inguru naturalaren laztasuna<br>Severidad del medio natural | Orientazioa ibilbidean<br>Orientación en el itinerario | Desplazamenduaren zailtasuna<br>Dificultad en el desplazamiento | Egin beharreko esfortzua<br>Cantidad de esfuerzo necesario |




## INTERES GUNEAK
## PUNTOS DE INTERÉS

**DONOSTIA ETA ERRENTERIA ARTEKO MUGARRIAK • MOJONES ENTRE DONOSTIA Y ERRENTERIA:** Basoan ezkutaturik, bi udalerrien arteko muga adierazten duten hainbat mugarrik bertan jarraitzen dute. Algunos de los mojones que marcan el límite entre Donostia y Errenteria siguen allí, escondidos entre la vegetación.

**OBERANGO PAGADIA • HAYEDO DE OBERAN:** Antzina Altzako udalerrikoa zen orbel eta goroldioz betetako pagadi zabala zeharkatzen du ibilbideak. El recorrido discurre sobre la hojarasca y una alfombra de musgo a través de un hermoso hayedo que pertenecía al antiguo municipio de Altza.

**URUMEA IBAIA • RÍO URUMEA:** Urumea ibaiaren zati basati eta naturalena izokin, amuarrain, bisoi europar eta muturluze piriniarraren paradisua. El tramo más salvaje y natural del Urumea paraíso de salmones, truchas, visón europeo y desmán del Pirineo.





galemys




Añarbeko eremua Aiako Harria Parke Naturalean kokatuta dago eta Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) izendatua izan da, Europa mailan biodibertsitatearen eta ondare naturalaren babeserako duen garrantziagatik. Natura 2000 Sarearen parte da.

Ubicado en el Parque Natural de Aiako Harria y declarado Zona Especial de Conservación (ZEC), por su importancia a nivel europeo para la conservación del patrimonio natural y la biodiversidad, Añarbe se encuentra incluido en la Red Natura 2000.









Azaleko argazkia - Fotografía de portada: Paisajes Españoles, S.A.
Argazkiak - Fotografías: Galemys (M. Iturriza)